# Pattal antzean ipar haizearekin

**EGURALDIA GAUR.** Joxe LANDA. Atzokoaren ildotik jarraituko du; haizeak iparretik joko du. Laino maskalak kostaldean eta tenperatura behe samarrean. Freskurak eta lainopeak mikaztuko du apur bat kostaldean. Euririk apenas, baina grazia gutxiko giroa ipar partean behintzat. Barnealdean askoz hobeto, tenperatura apur jaitsiko bada ere. Eguzkitsu eta tenperatura maila egokian dela, giro atsegina eta eguraldi dotorea hegoalde horietan. Beraz, kostaldean kale eta hegoaldean bale.




| Marée haute | |
|---|---|
| 07.08 | 3,82 m |
| 19.20 | 4,04 m |

| Marée basse | |
|---|---|
| 13.04 | 1,15 m |
| 01.35 | 1,04 m |

**LA MER.** Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, 2-3ko indarrarekin. Itsaso kizkurra edo itsaskirria eragingo du. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 1-1,5 m inguruko olatuak altxatuko ditu.

## Soleil

Lever 06.45
Coucher 21.48

## Lune

Lever 08.29
Coucher 23.03

## Cycles lunaires

Descendante, 06/05
Montante, 20/05
Croissante, 14/05
Pleine lune, 28/04







| Itsasgora | Itsasbehera |
|---|---|
| 07.48 h | 13.42 h |
| 20.00 h | --.-- h |



**BIHAR.** Hobekuntza nabarmena. Goizeko freskura eta laino maskalak segituan xurgatuko ditu eguzkiak eta tenperatura maila egokian egongo da egun osoan. Hegoaldean bero handi samarra, baina sanoa. Itsasertzean tenperatura brisarekin giro atsegina.